



## Zer da HorKonpon

Edozein udalerriko herritarrek lekutik mugitu gabe eta berehala kaleko matxurak edota hobekuntza eskaerak udalari igortzeko aukera izan dezaten **Kubbit** enpresak argitaratutako aplikazioa da **HorKonpon**.

Herritarrak arazoaren argazkia atera eta bidali besterik ez du egin behar. Mugikorraren GPS kokapenari esker, abisua dagokion udalari iritsiko zaio.

Udalak bere aldetik, ez du inolako aldaketarik egin behar bere sisteman: iradokizunen postontzian jasoko dute informazio guztia kokapen geografiko zehatzarekin, posta elektronikoa moduan.

Ez da beharrezkoa udalak inolako zerbitzuri atxikitzea; aplikazioa edozein udalerritatik erabil daiteke, salbuespenik gabe.



*Ohartarazpen adibidea*

Jatorriz **Pasaia**, **Errenteria** eta **Hernani**ko udalek barne erabilerarako bultzatutako proiektua da **HorKonpon**, bere aldetik **Kubbit** enpresak beste edozein udaletara zabaltzeko garatuta, hauetan egin beharreko instalazio edota sistemen aldaketarik gabe.

## Ezaugarriak

- Ez du instalaziorik behar udalean, dagoeneko udalerririk guztietan badabil.
- Ohartarazpenak udalaren postontzi nagusira bidaliko dira, edo adierazten zaigun bestelakora (postontzi anitzetara bidaltzeko aukera badago).
- Ohartarazpenak ainbat formatutan jaso daitezke:
  - Oinarrizko formatua (posta elektronikoa) doan da.
  - PDF formatua, inprimatu eta udaleko teknikariei lan-partea gisa emateko.
  - Udalak erabiltzen duen edozein kudeaketa-sistemarekin elkartu daiteke, integrazio API-ari esker.

## Udaleko teknikarientzat

Ainbat udalek barne erabilera ematen diote (herrilan saila, udaltzaingoa, etc.), kaleko arazoak berehala eta modu errazean udalera igortzeko.

Langileentzako bertsio pertsonalizatua eska daiteke, udalaren beharretara egokituta (eremu berriak, eraikinen barruan erabiltzeko GPS-rik behar ez izatea, etab.).

## Software librea

**HorKonpon** GNU Lizentzia Publiko Orokorra 2 (GPLv2) lizentzia librean argitaratutako proiektua da.